

Proiektu Eragile 9 ADMINISTRAZIO LOKALA MODERNIZATZEKO PLANA

AZALPENA:

Administrazio Lokala berritze eta modernizatzeko prozesuan aurrerapauso handia egin den arren, administrazio publiko lokalean kudeaketa eredu berrienak ezartzeko helburua duten zenbait ekintza indartzeko esfortzu osagarria egin behar da.

Ildo beretik, **kalitatea, berrikuntza** edo **sareko administrazio birtuala** bezalako kontzeptuek ekintza-multzo eraginkorra burutzeko aukera emango duen Plan bat eskatzen dute, eraginkorrago, hiritarrei gehiago eta hobeto artatzea ahalbidetuko duen, eta administrazio lokalaren erabakietan hiritarren parte hartzea erraztuko duen administrazioa lortu ahal izateko.

HELBURUAK: A-3 helburuan eragiten du bereziki: *hiritarrei kalitatezko zerbitzuak eskainiko dizkien Administrazio parte hartzailea, modernoa eta eraginkorra lortzea, batez ere, Administrazio Lokalari dagokionean*

DESKRIPZIOA:

"Hiritarrei kalitatezko zerbitzuak eskainiko dizkien Administrazio parte hartzaile, moderno eta eraginkor" hori lortzeko egin behar diren ekintzak jarduera-eremu hauetan banatu dira:

- **Herritarren Arretarako Zerbitzu Integrala** prestatu.
- **Antolaketa egituran** neurriak ezarri, Gerente-Koordinatzaile figura sortuz.
- **Zuzendaritza postuak indartu**
- **Deszentralizazioa**
- **Ekonomia garapena kudeatzeko** Elkarteak sortu.